


**VILLA HERMINIA**  
D MAILA

**ATEGORRIETA HIRIBIDEA 49**



**Domingo Agirrebengoa, 1934.**

**Deskribapena**

Etxearen motibo nagusia teilatupeko bilbaduraren eta solairu biko bay window-aren arteko konposizioa da, neotudor estiloan erabilitako motiboa bera. Begiratokiak bat datoz etxearen proportzio bertikalarekin eta altuera esanguratsuekin. Izan ere, beheko solairuak harrizko basamentuaren gainean lorategiarekiko hartzen duen altuera handia da; hurrenak lehen solairua eta teilatupeko bigarren solairua dira. Azpimarratzekoa harrizko basamentu horren gainean arkuaren eta pareta emokatuaren abio txukuna. Halako bolumen mugimendu bat badago malda handiko estalkiek, atariak, terrazak eta bi txapitulek –hauek teilazko bi isurki triangeluarrez osatu outhau motakoak dira, puntazorrotzak– eratu osagarriak bat egiten dutenean.

**D mailako babes erregimen espezifiko**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harria eta bilbadurak, estalkia, zurezko elementuak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.